

## BAIMENAK 06 - MDL/MDP - Salgaiak garraiatzeko baimena eskualdatzea

### Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Salgaien garraio publikorako baimena lagatzea edo eskualdatzea.

### Nork tramitatzen du

- MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DPTUA.
- Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua

### Harremana

#### Helbidea:

Julio Caro Baroja plaza, beheko solairua - atzealdea, 20018 Donostia

#### Ordutegia:

8:30etik 13:30era astelehenetik ostiralera

#### Helbide elektronikoa:

[garraiobaimenak@gipuzkoa.eus](mailto:garraiobaimenak@gipuzkoa.eus)

#### Harremanetarako telefonoa:

943 112991

### Nori zuzenduta

Enpresak eta autonomoak.

### Baldintzak

- Ordaindu gabeko zehapenik ez izatea.

a) Eskuratzailerak aldez aurretik ez izatea eskuratu nahi duen mota bereko garraio baimen baten titularra.

b) Eskuratzailerak ibilgailu guztiak edukitzera pasatzea, hau da, baimena eskualdatzen den unean hari atxikita dauden ibilgailu guztiak edukitzera, Lurreko Garraio Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamenduaren 38. artikuluan aurreikusitako modalitateetatik edozeinen bitartez: jabetza, finantza errentamendua edo errentamendu arrunta. (Lagatzailerak aldez aurretik baja eman beharko die eskualdatuko ez diren ibilgailuei).

c) Eskuratzailerak, eskuratu nahi duen baimena lortzeko eskatzen diren betekizun guztiak betetzea, ibilgailuen hasierako antzinatasunari dagozkionak izan ezik.

d) Aholkularitza edo gestoria baten bitartez jardunez gero: gestoriak 001k ordezkarieroldan alta emanda egon behar du.

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko agiriak

1.- Eskaera, behar bezala beteta. [GBE](#)

2.- Tasaren ordainketa (23,79€ ibilgailuko): ES65 2095 0611 091061117395 banku kontura egindako transferentziaren ordainagiria.

3.- Baimena lagatzeko idazkia. Idazkia eskualdatzen den baimenaren titularrak sinatu behar du persona fisikoen kasuan. MDP baimenen titular diren pertsona juridikoen kasuan, berriz, garraio kudeatzaileak (gaitasun agiriduna). Idazkia enpresaren ordezkariek sinatzen badu, indarrean dauden ahalordeak. Eskualdatze idatziak HILABETE BATEKO bateko balioa izango du sinatu den momentutik aurrera. [BAIMENA LAGATZEKO IDAZKIA](#)

4.- Baimena eskuratuko duenak egiaztatu beharko du salgaien garraio publikorako baimen berria emateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, dagokion fitxan ageri den dokumentazioa aurkeztuta:

Ibilgailu arinentzako baimen berriak (MDL):

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/21/2138>

Ibilgailu astunentzako baimen berriak (MDP):

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/21/2140>

### Eskaera moduak

» Internet

### Internet bidezko eskaera

Eskaera eta dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez bidali behar da.

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTtramiteakWEB/inicio.do>

## Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

## EBAZPENA

---

### Ebazteko gehienezko epea

Legezko epea: bost hilabete.

### Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

## ARAUDIA

---

- Uztailaren 30eko 16/1987 Legea, Lurreko Garraioa Antolatzekoa, zeina aldatu egin baitzen uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bidez. [Legea, lehorreko garraioak antolatzeari buruzkoa](#),
- Irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretua, Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen Erregelamendua onesten duena, zeina aldatua izan baitzen otsailaren 15eko 70/2019 Errege Dekretuaren bitartez. [LGAE](#)